

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA OROKOR **EGUNERATUAK:**

BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRTAZAILEA

DEIALDIA BERRIRO HASI ETA ZABALTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

2020ko martxoaren 12an egindako deialdia atzeratu eta egungo inguruabarrak ebaluatu ondoren, Hautaketa Batzordeak erabaki du berriro hasia deialdia eta hautaketa prozesua.

Era berean, hautaketa prozesuko probak oraindik ez direnez hasi, eskabide berrien onarpena luzatu da horretarako ezarritako epean (2020ko irailaren 14tik 28ra) eta oinarri eguneratu hauekin bat etorritz.

2020ko martxoaren 10ean argitaratu zen onartutako hautagaien behin betiko zerrendaren arabera onartuta daudenek ez dute eskaera berririk aurkeztu behar, baina euskara mailaren egoera eguneratu ahal izango dute, denbora horretan egoera aldatu bada (ikus laugarren oinarriko oharra).

Ondoren azaltzen diren oinarri eguneratuak pertsona guztiei aplikatuko zaizkie, hau da, bai izena eman eta jada onartuta daudenei, bai eskaera aurkeztu nahi dutenei.

Eguneratu diren testuak gorritz ageri dira.

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Balio Anitzeko Gidari-Kobratzailearen Lan Poltsa sortzea Donostiako Tranbia Konpainia, SAUrako (aurrerantzean DTK).

Balio anitzeko Gidari-Kobratzailearen Poltsa 100 lagunek osatuko dute gehienez (hautaketa prozesu osoan, hauex da, 1., 2., 3., eta 4. Faseetan eta Merituen Balorazioan puntuazio handiena lortzen dutenek, berdinketa gertatuz gero handituta puntuazio berdina lortu dutenak sartu arte).

Gehienez ere 100 hautagai izango dituen Poltsa hori hiru talde desberdinen arabera antolatuko eta kudeatuko da, hautaketa prozesuan egiaztatu duten euskara mailaren arabera. Honako hauek izango dira taldeak:

- % 50 gehienez Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera 1. HE edo baliokidea baino maila handiagoa duen talderako (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera 2. HE edo baliokidea edo goragokoa, edo Euskaltegietako mailen sailkapeneko 6. Urratsetik aurrera). Hauxe da, gehienez ere 50 hautagai. Hautaketa prozesua gainditu izanik prozesu osoan (1 - 4. Faseak gehi Merituen Balorazioa) puntuazio handiena duten 50 hautagaiak talde honetan sartuko dira. Kupo hori gainditzten duten hautagaiak, hala behar badu, 1. HEko taldera pasako lirateke.
- % 20 gehienez Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera 1. HE edo baliokidea duen talderako. Hauxe da, gehienez ere 20 hautagai. Hautaketa prozesua gainditu izanik prozesu osoan (1 - 4. Faseak gehi Merituen Balorazioa) puntuazio handiena duten 20 hautagaiak talde honetan sartuko dira. Kupo hori gainditzten duten hautagaiak, hala behar badu, maila egiaztatu ez dutenen taldera pasako lirateke.
- Gainerakoak, euskara maila egiaztatu ez dutenak. Hautaketa prozesua gainditu izanik prozesu osoan (1 - 4. Faseak gehi Merituen Balorazioa) puntuazio handiena duten hautagaiak talde honetan sartuko dira 100 lagunekoko Poltsa osatu arte.

DTKk duen Hitzarmen Kolektiboko 11. mailari dagokiona izango da eta enpresako hitzarmenaren arabera dagokiona izango da lanaldia, postuaren izaera eta beharrak aintzat harturik betiere.

Osatutako lan poltsak langile behar ez iraunkorrak, premiazkoak eta geroraezinak betetzeko erabiliko dira, baldin eta salbuespenezko kasuak badira, eta behin-behineko kontratuak eginda betiere. Hori guztia, plazaren izaeragatik eta betiere horretarako lege estaldurarik baldin badago, izaera mugagabeko lanpostuak betetzeko izan daitekeenean salbu.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Deialdi honetan onartua izateko eta, hala behar badu, Hautaketa Prozesuan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte hautagaiak:

- Europar Batasuneko kide den estaturen bateko edo Espainiako Estatuarekin lan hitzarmena sinatua duen herrialderen bateko hiritartasuna izatea edo horietan lan egiteko eta bizitzeko baimena izatea.

- Postuari dagozkion lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea.
- Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko lukeen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea. Betekizun hori egiaztatzeke, osasun azterketaren agiria aurkeztu beharko da lanpostuan hasi aurretik. Honekin batera doan II. Eranskinean jaso da osasun azterketetako esklusioen koadro medikoa.
- Zigor espediente bidez Herri Administrazioiko Zerbitzutik baztertua ez egotea.
- "D" motako Gidabaimena izatea.
- Gidatzeko Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria (GGA) izatea.

HIRUGARRENA.- ONARTUA IZATEKO ESKUBIDEAK ORDAINTEA.

Deialdian onartzeko eskubideak 20 euro dira.

Eskubide horiek ordaintzeko, Donostiako Tranbia Konpainia S.A.U.k KUTXABANKen duen kontuan ordainduko da zenbateko hori, honako zenbaki honetan:

ES81 2095 0611 0310 6329 4275

Eskubideen ordainketaren egiaztagirian hautagaiaren NANren zenbakia, izena eta deiturak agertu beharko dira.

Ordainketaren egiaztagirian datu horiek behar bezala agertzen ez badira, ordainketa egin gabe dagoela ulertuko da.

Ezin izango da onartzeko eskubideengatik ordaindutakoa itzultzeko eskatu Deialdiko Hautaketa Prozesuaren fase bakar batean ere, eta gainera diru hori ez da inolaz ere itzuliko.

LAUGARRENA.- ONARTUAK IZATEKO ESKAERAK AURKEZTEA.

2020ko martxoaren 10ean argitaratu zen onartutako hautagaien behin betiko zerrendaren arabera onartuta daudenek ez dute eskaera berririk aurkeztu behar, baina euskara mailaren egoera eguneratu ahal izango dute, denbora horretan egoera aldatu bada (ikus oinarri honetako oharra).

Hautagaiak OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia) aurkeztu beharko dute eskaera, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 18:00etara, edo bestela, helbide horretara bidali.

GARRANTZITSUA: Interesdunek maskararekin joan beharko dute eta zorrotz bete beharko dituzte Covid-19ren aurkako segurtasun eta higiene arauak eta neurriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte onartuak izateko:

- a) Onartuak izateko eskaera orria behar bezala bete (inprimakia eskuragarri dago I. Eranskin gisa www.dbus.eus helbidean eta baita Oteic Taldearen eta DTKren bulegoetan ere).

GARRANTZITSUA: interesdunak *Onarpen Eskaeraren* inprimakiaren karatularen fotokopia eraman beharko du, eta zigilatua itzuliko zaio frogagiri gisa.

- b) Deialdian onartua izateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, behar bezala identifikatua, hirugarren oinarrian adierazten den bezala.
- c) “D” motako Gidabaimenaren fotokopia.
- d) Gidatzeko Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiriaren (GGA) kopia.
- e) Hala badagokio, egiaztatzen den Euskarako titulu ofizialaren fotokopia konpultsatua, edo bestela, fotokopia arrunta eta harekin batean jatorrizko dokumentua erkatu ahal izateko.

Lehenengo Oinarrian Talde bakoitzerako adierazitakoak dira onartuko diren Euskarako titulazioak.

2020ko martxoaren 10ean argitaratu zen onartutako hautagaien behin betiko zerrendaren arabera onartuta daudenek euskara mailaren egoera eguneratu ahal izango dute, denbora horretan egoera aldatu bada. Horretarako, *euskara maila eguneratzeko* inprimakia behar bezala bete eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dituzte. Inprimakia eranskin gisa eskuragarri dago www.dbus.eus helbidean, bai eta Oteic Taldearen eta DTKren bulegoetan ere.

GARRANTZITSUA: interesdunak *Euskara maila eguneratzeko* inprimakiaren fotokopia eraman beharko du, eta zigilatua itzuliko zaio frogagiri gisa.

Eskatutako agiri horien bidez behar bezala egiaztatu ez diren hautagaitzak Deialditik kanpo utzi ahal izango dira Hautaketa Batzordeak hala erabakitzen badu.

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, Deialdiaren iragarkia prentsan argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta zehatz esateko, 2020ko irailaren 14tik 28ra arte (biak barne).

Adierazitako epean eta moduan aurkeztutako hautagaitzak bakarrik onartuko dira, eta baztertu egingo dira baldintza horiek betetzen ez dituzten guztiak.

BOSGARRENA.- HAUTAGAIK ONARTZEA.

Onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Hautaketa Prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda **OROKORRA** argitaratuko da www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, kanpoan gelditu direnak zergatik baztertu diren azalduta. Zerrenda hori hiru bat eguneko epean argitaratuko da, onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera kontatuta.

Baztertuta gelditu diren hautagaiek egokitzat hartzen dituzten erreklamazioak edo okerren zuzenketak egin ahal izango dituzte, eta horretarako 2 egun izango dituzte, zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta, egun hori barne. Erreklamazioak edo okerren zuzenketa zerrendan azaltzen den moduan egingo dira.

Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu alegazioak, eta behin ebatzita, Hautaketa Prozesuan onartutako hautagaien behin betiko zerrenda **OROKORRA** argitaratuko du www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, bi bat eguneko epean, alegazioak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera kontatuta.

Zerrendetan sartuko dira 2020ko martxoaren 10ean argitaratu zen onartutako hautagaien behin betiko zerrendan jasota dauden onartutako hautagaiak, bai eta eskaera aurkeztu duten hautagai berriak ere.

Onartu gabe jarraitzen duten hautagaiek ez dute Deialdian eta Hautaketa Prozesuan jarraitzeko aukerarik izango.

SEIGARRENA.- BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEEN LAN POLTSARAKO HAUTAKETA PROZESUA.

Honako Fase hauetan banatuko da Hautaketa Prozesua:

1. Proba Profesional Teorikoa.
2. Proba Psikoteknikoak eta Gaitasun probak.
3. Proba Profesional Praktikoa.
4. Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala.

Osagarri gisa honako hauek egingo dira:

- Merituen balorazioa.
- Euskara azterketa

Hautaketa Batzordeak probak egiteko ordena erabaki ahal izango du (osasun azterketa barne, derrigorrezkoa eta baztertzalea, hamargarren oinarrian adierazten dena), eta egun berean hainbat fase eta proba egitea erabaki ahal izango du.

Lau fase horietan zehar gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. Honako hauek dira 100 puntu horien balorazioa eta fase bakoitzean lor daitezkeen gehieneko eta gutxieneko puntuazioak:

FASEA	Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa	Eskatzen den gutxieneko puntuazioa
1. PROBA PROFESIONAL TEORIKOA	10	5
2. PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUN PROBAK	30	20
3. PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA	40	30
4. ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA	20	12
GUZTIRA ...	100	67

Osagarri gisa:

MERITUEN BALORAZIOA	Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa	Eskatzen den gutxieneko puntuazioa
-Esperientziaren balorazioa	12	---
-Gidabaimenean puntuak izatea	3	---
GUZTIRA ...	15	---

1. FASEA: PROBA PROFESIONAL TEORIKOA

Proba teorikoa izango da, honako gai hauen ingurukoa: “D” motako gidabaimena lortzeko eskatu daitezkeen alderdiak; gai nagusi hauek: hiriko Kale izendegia eta DTKren autobus zerbitzuaren ibilbideak eta zerbitzuak (ikus www.dbus.eus) eta Donostiako Hiri Garraioari buruzko Araudia (ikusi www.dbus.eus webgunean eskuragarri dagoen materiala); eta gai osagarri hauek: Industriako Ibilgailuen Gidatze Eraginkorrari buruzko Gida (ikus www.dbus.eus webgunean eskuragarri dagoen materiala) eta Bidaiarien errepide bidezko garraio publikoaren kalitate eta Erantzunkidetasuna (ikus www.dbus.eus webgunean eskuragarri dagoen materiala).

Orokorki, proba hau gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 10 puntuak oinarri hartuta. Gutxieneko puntuazio hori edo puntuazio handiagoa lortzen duten hautagaiak Hautaketa Prozesuko hurrengo fasera pasa ahal izango dira.

Hala ere, Hautaketa Batzordeak ahalmena izango du, izenez identifikatu aurretik, gutxienez zein maila lortu behar den erabakitzeko, eta horrenbestez, azterketa gainditzeko beharreko puntuazioa murrizteko, baina inolaz ere ez da 4 baino txikiagoa izango. Hori guztia, kontuan izanik azterketara aurkeztu den parte hartzaile kopurua, haren zailtasuna eta aurreikusitako antolakuntza beharrak, eta meritu eta gaitasun printzipioak errespetatuz betiere.

2. FASEA: PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUN PROBAK

Hainbat proba psikotekniko eta gaitasun proba egingo dira, hautagaiek lanposturako behar diren gaitasunak eta trebetasunak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan gutxienez 20 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 30 puntuak oinarri hartuta.

1. Fasean eta 2. Fasean lortutako emaitzekin onartutakoen behin-behineko zerrenda osatuko da. Lortutako guztizko puntuazio ordenaren arabera, puntuazio handiena lortu duten 200 hautagaiak jarriko dira ebaki-puntu gisa, eta horietatik izango dira hautaketa prozesuan jarraitu ahal izango dutenak, berdinketa gertatuz gero handituta puntuazio berdina dutenak sartu arte.

3. FASEA: PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA

Fase honetan gidatze proba bat egingo da, eta hartan, indarrean dagoen legeriak gidatzeko baimena lortzeko probetarako finkatutako arauak eta seinaleak betetzen diren baloratzeaz gainera, laneko arriskuen prebentzioarekin loturiko alderdiak, jarrera, gidatzeko estiloa eta errepideko enpatia baloratuko dira.

Proba hau gainditzeko, gutxienez 30 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 40 puntuak oinarri hartuta. Gutxienerako puntuazio hori edo puntuazio handiagoa lortzen duten hautagaiak Hautaketa Prozesuko hurrengo fasera pasa ahal izango dira.

4. FASEA: ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA

Hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horrez gain banaka edota taldeka beste proba batzuk ere egingo zaizkie, dituzten ezaugarri pertsonalak eta gaitasunak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez jakiteko.

Fase honetan gutxienez 12 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta.

Deialdia gainditzeko puntuaziorik txikiena 67 puntu dira, Balio anitzeko Gidari-Kobratzaileen lan poltsan sartzeko gehienez atera daitezkeen 100 puntuak oinarri hartuta (1. Fasearen definizioan aurreikusi den bezala, Hautaketa Batzordeak eskatutako gutxienerako puntuazioa murriztea erabakitzen duenean izan ezik).

1. eta 2. faseei dagozkien probak 2020ko urrian egitea aurreikusi da, egun berean. Hori guztia, osasun egoerak eta gainerako inguruabar teknikoek eta antolaketakoek uzten badute.

Deialdi ofiziala zazpigarren oinarrian aipatzen diren jakinarazpen ofizialen bidez egingo da.

Osasun arloko agintariek, Covi-19k sortutako osasun egoeraren bilakaeraren arabera, une bakoitzean ematen dituzten jarraibideen mende dago aurreikuspen hori. Hori dela eta, aurreikuspen horrek aldaketak izan ditzake, eta deialdia jakinarazteko bitartekoetan emango da horren berri.

Osagarri gisa honako hauek egingo dira:

MERITUEN BALORAZIOA

- **ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA:** Gidatze esperientzia profesionala Gizarte Segurantzak egindako egiaztagiriekin edo/eta enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko da, eta honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

- 6 puntu hiri autobusak gidatzen lan egindako urte bakoitzeko.
- 4 puntu hiri arteko autobusak gidatzen lan egindako urte bakoitzeko.
- 2 puntu zerbitzu berezietako autobusak gidatzen lan egindako urte bakoitzeko.

Atal honetan gehienez 12 puntu lortu ahal izango dira.

- **GIDABAIMENEAN PUNTUAK IZATEA:** Trafiko Zuzendaritza Nagusiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da puntuak edukitzea (ziurtagiriak TZNren zigilua eta sinadura izan behar ditu). Atal honetan gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, honako taula honen arabera:

GIDABAIMENEN PUNTUAK	LORTUTAKO PUNTUAK
15	3
14	2
13	1

Hautaketa prozesu osoan, hauex da, 1., 2., 3. eta 4. Faseetan eta Merituen Balorazioan, eskuratutako emaitzekin, eta lortutako guztizko puntuazio ordenaren arabera, puntuazio handiena lortu duten 100 hautagaiak jarriko dira ebaki-puntu gisa, eta horiexek izango dira hautaketa prozesuan jarraitu ahal izango dutenak, berdinketa gertatuz gero handituta puntuazio berdina dutenak sartu arte.

EUSKARAKO AZTERKETA

Euskarako azterketan idatzizko eta ahozko probak egingo dira.

Idatzizko azterketa Proba Psikoteknikoekin eta Gaitasun Probekin batera egitea aurreikusten da, eta ahozkoa, berriz, Proba Profesional Praktikoaren ondoren egingo da seguru asko.

Onartuak izateko Eskaera Orrian hala adierazi duten hautagaiek bakarrik egin ahal izango dute azterketa hau.

Hautagaiak ziurtagirien bidez edo euskarako azterketaren bidez egiaztatutako euskara mailak hautagaiak hiru taldeetan banatzeko balio izango du, lehenengo eta hamargarren oinarrietan zehaztutakoaren arabera betiere.

Fase bakoitzera joateko deia hautagai guztiei batera egingo zaie. Hautaketa Batzordeak deitutako probara adierazitako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren hautagaiak Hautaketa Prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko.

Probak egiteko deitutako hautagaiak jatorrizko NAN, pasaportearen edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Espresuki debekatuta dago datuak transmititzeko eta irudiak edo soinuak hartzeko gaitasuna duen edozein gailu elektronikoa (telefono mugikorra, tableta, erloju adimenduna, liburu elektronikoa eta abar) erabiltzea azterketa gela barruan, eta itzalita egon beharko dute azterketak egiten diren bitartean. Bestela, azterketa utzi eta kanpora atera beharko du hautagaiak.

Aukera berdintasuna (gizonena nahiz emakumeena) bermatuko da prozesu honetan.

ZAZPIGARRENA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orrian: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Lehen argitalpenaren aurretik interesaturik dauden pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio bere eskaerari izendatutako eta hautaketa-prozesuaren garapenean behar diren argitalpenetan identifikatuko dion kodea. Jakinarazpena onartua izateko eskaera orrian adierazitako posta elektronikoa bidez egingo da.

2020ko martxoaren 10ean argitaratu zen onartutako hautagaien behin betiko zerrendaren arabera onartuta dauden pertsonen kasuan, mantendu egingo da haien eskabideari esleitu zitzaion identifikazio kodea, posta elektronikoz jakinarazi zitzaiena.

ZORTZIGARRENA.- ALEGAZIOAK.

Alegazioak edo/eta akatsen zuzenketak Hautaketa Batzordeari zuzendu behar zaizkio une bakoitzean adieraziko den epean eta moduan.

Erreklamazioak egiteko epeak bukatutakoan, hartutako akordioak behin betiko bilakatuko dira, eta geroago ezin izango da haien edukia inpugnatu.

BEDERATZIGARRENA.- HAUTAKETA BATZORDEA.

Hautaketa Batzordearen osaera Administrazio Kontseiluak finkatutakoa izango da.

Hautaketa Prozesua objektiboa izan dadila zainduko du Hautaketa Batzordeak. Era berean, ahalmena izango du hautaketa prozesuan sortzen diren zalantzak argitzeko eta Deialdia arau hauen arabera ondo joan dadila bermatzeko beharreko erabakiak hartzeko, eta oinarri hauetan aurreikusita ez dauden kasuetan erabili behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiak Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialdiatik kanpo utzi ahal izango ditu informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

Hautaketa Batzordeak aholkulari adituak izan ditzake egokitzat hartzen dituen probak aurrera eramateko.

HAMARGARRENA.- LANEAN HASTEA. LAN POLTSA OSATZEA ETA KUDEATZEA.

Hautaketa Prozesua amaitutakoan, Hautaketa Batzordeak www.dbus.eus webgunean eta Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan argitaratuko du Lan Poltsan onar daitezkeen hautagaien zerrenda, eta baita hautagai bakoitza azkenean zein taldetan geldituko den adieraziko da halaber, hautaketa prozesuan egiaztatutako Euskara mailaren arabera, eta talde bakoitzerako aurreikusitako gehieneko kupoaren ehunekoak aplikatu ondoren, Deialdiaren lehen Oinarriari jarraiki.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa, Hautaketa Prozesuaren fase bakoitzean eta Merituen Balorazioan lortutako kalifikazio partzialen batura izango da. Azken kalifikazio horrek zehaztuko du zein den prozesua gainditu dutenen behin betiko puntuazio ordena Poltsan eta, egiaztatutako euskara mailaren arabera osatutako taldeetan.

Lan poltsan sartutako hautagaietako bati dagokion lanpostuan hasteko deia egiten zaionean, osasun azterketa egin beharko zaio, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, bigarren oinarrian adierazi bezala. Lanpostuan hasi behar duen pertsona bakoitzari proba hauek egingo zaizkio, besteak beste: odol eta gernu analisiak, bihotz-biriketako miaketa (EKG), sabelaldeko miaketa, bizkarrezurraren azterketa, miaketa neurologikoa, ikusmenaren kontrola, entzumen azterketa eta anamnesia.

Hala ere, DTKk bere esku du beste proba gehigarri batzuk eskatzeko edo egiteko aukera.

Nolanahi ere, osasun azterketa gainditzeko, hautagaiek ez dute II. Eranskinean – “Osasun azterketetako eskusioen koadro medikoa” jasotako gaixotasun edo urritasun bakar bat ere izan behar.

Lan poltsan sartutako hautagai batek proba horiek gainditzen ez baditu, hau da, lan poltsaren xede diren lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzea eragozten duen edozein kasu gertatzen bada, lan poltsatik kanpo geratuko da.

Balio anitzeko Gidari-Kobratzailearen lan poltsan dauden hautagaiek **lanpostu hori betetzeko eskubidea izango dute langile behar ez iraunkorrak, premiazkoak eta geroraezinak daudenean, baldin eta salbuespenezko kasuak badira, eta betiere aldi baterako kontratuak egingo dira.** Hori guztia, plazaren izaeragatik eta betiere horretarako lege estaldurarik baldin badago, izaera mugagabeko lanpostuak betetzeko izan daitekeenean salbu.

Balio anitzeko Gidari-Kobratzailea poltsaren kudeaketa honako honen arabera egingo da:

Poltsan gehienez ere egongo diren 100 pertsonak (fase desberdinetan puntuazioan berdinketa gertatuz gero handituta, seigarren oinarrian aurreikusi bezala) egiaztatutako euskara mailaren arabera banatuko dira, lehen oinarrian adierazitakoaren arabera.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da guztira zenbat hautagai hasiko diren lanean. Guztira zenbat lagun izango diren kontuan harturik, % 50 Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera 1. HE edo baliokidea baino maila handiagoa dutenen taldetik deituko dira. % 20 Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera 1. HE edo baliokidea dutenen taldetik deituko dira, eta % 30 (gaineakoak) maila egiaztatu gabe dutenen taldetik.

Talde bakoitzari egin beharreko deien ondorioetarako, izandako azken kalifikazioan (Merituen Balorazioa barne) oinarriturik hautagai bakoitzak lortu duen lekua hartuko da kontuan, eta horrexek erabakiko du bakoitzaren lehentasuna Taldearen barnean. Horren harira, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- 1. HE (edo baliokidea) baino maila handiagoa dutenen Taldean sartutako hautagaiak Euskara maila txikiagoa egiaztatu dutenen hurrengo bi Taldeetan ere egon daitezke, eta haien azken kalifikazioa izango da talde bakoitzean izango duten lehentasuna erabakiko duena.
- 1. HE (edo baliokidea) dutenen Taldean sartutako hautagaiak Euskara maila txikiagoa egiaztatu dutenen hurrengo Taldean ere egon daitezke, eta haien azken kalifikazioa izango da talde bakoitzean izango duten lehentasuna erabakiko duena.
- Euskara maila egiaztatu ez dutenen Taldean sartutako hautagaiak Talde horretan bakarrik egon ahal izango dira, eta haien azken kalifikazioa izango da talde horretan izango duten lehentasuna erabakiko duena.

Aurrekoan oinarriturik, hautagai bakoitzak dagoen Taldean edo, hala behar badu, egon daitekeen taldean edo taldeetan duen leku hoberenaren arabera kudeatuko dira deiak.

Horrenbestez, ondorioztatzen denez 1. HE baino Euskara maila handiagoko Taldean edo 1 HE mailako (edo baliokidea) Taldean dagoen hautagaia ondo asko sar litekeela Euskara maila txikiagoko Taldeetan bere azken kalifikazioak kasu bakoitzean emango dion leku erlatiboan, izan ditzakeen aukeren artean hautagaiarentzat onuragarriena dena kudeatuko da. Aldiz, Euskara maila egiaztatu ez dutenen Taldeko hautagai bat Talde horren barnean bakarrik aintzat hartu ahal izango da, talde horretan duen leku erlatiboaren arabera, eta haren leku erlatiboa ezin izango da aintzat hartu Euskara maila handiagoko Taldeetan.

Hautagaien azken puntuazioan berdinketa gertatzen bada, euskara maila handiena egiaztatua duen hautagaiak izango du lehentasuna hiru taldeetako bakoitzean (1. HE baino maila handiagoko taldea, 1. HE mailako taldea eta maila egiaztatu ez dutenen taldea).

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deiarri uko egiten badio, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsa bi urterako izango da, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik aurrera kontatuta.

Hala ere, arrazoi operatiboengatik, gehienez beste urte batez luza liteke lan poltsaren iraupena.

Nolanahi ere, lan poltsa berria osatzen denean, hau indargabetuta geldituko da. Hauxe da, lan poltsa hau ordezkatzeko DTKk hautaketa prozesu berria deitzen duenean, hautaketa prozesu berrian izena eman beharko dute oraingo lan poltsan dauden pertsonak.

Osatutako Lan Poltsan egoteagatik Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.n lanean hasten diren pertsonak 2 hilabeteko probaldia izango dute. Probaldiak irauten duen bitartean, langileak nahiz Enpresak probaldia bertan behera uzteko edo ez berritzeko erabakia hartu ahal izango dute alde zuzenetik jakinarazi gabe, eta aldeetako bakar batek ere ez du horregatik kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango, lan egindako egunengatik dagokion ordainsaria besterik ez du jasoko langileak. Denbora horretan zehar enpresak langileen ebaluazio jarraitua egingo du, gertakizunak, istripuak eta erreklamazioak kontuan harturik, besteak beste. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.k une bakoitzean indarrean dituen arauak beteko dituzte pertsonak, kontratazioaren eta lanaren balorazioaren alorretan, besteak beste, kasu bakoitzean edozein izanda ere kontratazio modalitatea.

HAMAIKAGARRENA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Hautagaiak beren eskaeretan emandako datu pertsonalak eta oinarri hauetan araututako prozesuan Donostiako Tranbia Konpainia, SAUri ematen dizkietenak erakunde horrek tratatuko ditu tratamenduaren arduradun gisa, oinarri hauen xede den hautaketa prozesuan euren parte hartzea eta, hala badagokio, lan poltsan sartzea kudeatzeko helburu bakarrekin.

Hori horrela, aditzera ematen da hautagaiak, bere hautagaitza aurkezten duenean, baimena ematen duela bere datu pertsonalak oinarri hauetan ezarritako moduan tratatzeko, barne hartuta lan poltsan sartutako hautagaiei egiten zaizkien osasun azterketetatik ateratzen diren osasun datuak, lanpostuan hasteko dei egiten zaienean.

Datuen babesari buruzko araudian ezarritakoa betetzeko, Donostiako Tranbia Konpainia, SAUk Datuak Babesteko ordezkari bat (DBO) du izendatuta. Ordezkari hori arduratzen da erakundearen pribatutasunaren kudeaketaz eta kontrolaz, eta hautagaiak harekin harremanetan jar daitezke helbide elektronikoko honen bidez: dpo@dbus.eus

Donostiako Tranbia Konpainia SAUK hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko behar-beharrezkoa den denboran, eta, hala badagokio, aukeratutako hautagaiak lan poltsan sartu eta egon daitezten kudeatzeko, bai eta, beharrezkoa denean, erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio epe gehigarrietan ere.

Oinarri hauetan espresuki aurreikusitako argitalpenez gain, eta legez eska daitekeen kasuetan izan ezik, hautagaien datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak ere ez dira egingo.

Izangaiek eskubidea izango dute (i) beren datuak tratatzeko emandako baimena ezeztatzeko eta beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datuok beste norabait eramateko edo, bidezkoa denean, datuon tratamenduari aurka egiteko ere, lopd@dbus.es helbidera zuzendutako idatzizko eskaeraren bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste edozein kontrol agintaritzaren eskudunetan, batez ere beren eskubideak erabiltzean gogobetarik gelditu ez direnean.

Donostian, 2020ko irailaren 13an